



Diru sarrerei dagokienez bazkideon kapitala eta autobus elektrikoa erabiltzeagatiko jasoko ditugun diru laguntzak erabiliko ditugu.

Hasteko, lau bazkide gara eta hasierako kapitala izateko bazkide bakoitzak 10.000€ jarriko ditu, 40.000€rekin nahiko izango da gure zerbitzua martxan jartzeko. Diru honekin hasierako inbertsioak egingo ditugu eta gure gastuak antolatzen hasiko gara.

Bestalde, autobus elektrikoa erabiliko dugu, honek gastu gehigarriak ekarriko dizkigu autobus hauek besteak baino garestiagoak direlako eta bestelako mantenimendu bat behar dutelako. Baina autobus elektrikoa den heinean ingurumena zaindu eta jasangarritasuna bultzatzen ari garela ulertzen dugu. Horregatik Eusko Jaurlaritzari diru laguntzak eskatuko dizkiogu, autobus elektrikoak erosi ahal izeteko eta gure zerbitzua jasangarria izan dadin.

Horrez gain, kontuan hartu behar da gure zerbitzuari esker gauez emakumeen aurka gertatzen diren bortxaketak sahiestuko direla eta ez dutela gauez etxeraino bakarrik itzuli beharko. Gainera, istripu asko sahiestuko genituzke, askotan gazte askok kotxea alkoholaren eraginpean hartzen baitute, eta honek haiengan eta errepidean dabiltzan beste herritar batzuegan arazo ugari elartzen ditu. Jai busari esker eraso edo istripuak izugarri sahiestuko lirateke.